



## **HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA**

### **2006-2007 IKASTURTEA**

#### **1. SARRERA**

Ikuskaritzaren Urteko Plan honek berrikuntza esanguratsuak dakartza 2005/08rako Hiru Urteko Planak ezarritakoari begira. Berrikuntza horiek Ikuskaritza Plana hobetzeko 2005/06 ikasturtean egindako azterketen ondorio dira. Horretarako, ondorengo puntuak hartu dira kontuan:

- Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek egindako bileretan ateratako ondorioak.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzailleak zein mailatan dauden pozik baloratzeko inkesten emaitzak.
- Prysma enpresak egindako Hezkuntza Ikuskaritzaren hasierako diagnostikoa, UNE-EN ISO 9001:2000 arauan oinarrituta Hezkuntza Ikuskaritza ziurtatzeko asmoz.

Urteko Plan honen bidez finkatu nahi da euskal hezkuntza-sistemaren, oro har, eta, Ikuskaritzaren jardueren lehentasunezko hartzailleak diren aldetik, ikastetxeen, Administrazioaren eta eskola-erkidegoaren premiei eraginkortasunez erantzungo dien Ikuskaritzaren eredu bat. Eredu honek erraztasunak eman nahi ditu koordinatzeko eta lantaldeak osatzeko eta, halaber, ikuskarien parte hartzea eta, Urteko Plan hau osatzen duten prozesuen plangintza, garapen eta ebaluazioan, gero eta ardura handiagoa izatea sustatu nahi ditu. Urteko Plan honen indarraldiaren barruan, Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtatzea, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren arabera, ezartzen da helburu gisa.

Lehen aipatutako azterketak eta ondorioak ikusi ondoren, ondorengo premiak antzematen dira:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko politika definitzea.
- Kalitate-helburuak zehaztea, UNE-EN ISO 9001:2000 aruaren baldintzen arabera, helburu horien jarraipena eta kontrola egin ahal izateko behar diren adierazleekin.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuen mapa berregituratzea.
- Planeko jarduerak sinplifikatzea eta lan-kargak hobeto banatzea.
- Ikuskariak bere erreferentziako ikastetxeetan egin beharreko ohiko jardueren sistematizazioa.
- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzekin, Hezkuntza arduradunekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan egin beharreko jardueren sistematizazioa.
- Ikuskariak jarduteko irizpideak koordinatu eta bateratzea.
- Kontrol handiagoa jarduerak gauzatzean.
- Arreta hobea ematea eskola-erkidegoko partaide desberdinek egindako eskaerei.
- Sistema komunak finkatzea, dokumentazioa paper-euskarrian eta euskarri informatikoan kudeatzeko.
- Prestakuntza-jardueren planifikazioa eta eraginkortasunaren ebaluazioa.

Premia hauei erantzuna emateko, Urteko Plan hau ondorengo atal eta eranskinetan egituratzen da:

- Kalitateari buruzko politika.
- Kalitate-helburuak.
- Ikuskaritzaren prozesuen mapa.
- Azpiprosesuak aplikatzeko zehaztapenak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketa:
  - Lan-batzorde eta taldeak.
  - Zaintza-egunean dauden kanpo eskaerei eman beharreko arreta antolatzea.
  - Dokumentazioaren kudeaketa eta artxiboa.
- Ikuskaritzako pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea.
- Urteko Planaren ebaluazioa.

## **2. KALITATEARI BURUZKO POLITIKA.**

Ondorengo hau da Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek hitzartu duten Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko politika, UNE-EN ISO 9001:2000 arauaren baldintza dena:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzak (hemendik aurrera Hezkuntza Ikuskaritzak) uste du bere lana beharrezkoa dela, euskal hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek, bereziki, kalitateko funtzionamendu bat lortzeko.
- Horregatik, haren jarduerak, agindu zaizkion ebaluazio-, kontrol-, aholkularitza- eta lankidetzeta-funtzioetan agertzen direnak, behar bezala kudeatzeak lehenetsuna du eta kontuan hartu behar da ikuskari bakoitzaren eguneroko lanean, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzionamendu ona ziurtatzeko eta ahalik eta hobekien senti daitezen eskola-erkidegoa, Hezkuntza-Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritzako partaideak berak.
- Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzuak ematen dituen pertsonala (ikuskariak eta administrazio-pertsonala) da haren aktiborik nagusia. Ikuskaritza Nagusia eta Burutza desberdinak, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkia, parte-hartzea, espezializazioa, profesionaltasuna, talde-lana eta emaitzen ebaluazioa antolaketa-irizpideen arabera, pertsonalaren motibazioa eta pozik egotea lortzen saiatuko dira, haien garapen humano eta profesionala sustatuz.
- Hezkuntza Ikuskaritzak, Ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko prozesuan, bere gain hartzen du ondorengo ezaugarriak izango dituen antolaketa eraginkor bat edukitzeko konpromisoa: haren profesionalak jardueren eta eskaintako zerbitzuen eguneroko kudeaketan parte hartzea, haren prozesuak etengabe hobetzeko lan egitea eta eskola-erkidegoa, Hezkuntza Administrazioa eta Hezkuntza Ikuskaritza bera pozik egon daitezen behar diren gestioak egitea.
- Antolaketaren helburuak betetzen direla bermatzeko, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema bat ezarri du, Ikuskaritzaren jarduera arautuko duten ondorengo estrategiak agertuko dituena:

- Ikastetxeek, ikasleek, gurasoek eta Hezkuntza-Administrazioko arduradunek, beren funtzioetan jardutean, osatzen duten erkidegoaren premia eta itxaropenei erantzuna ematea.
  - Arreta hobe eskaintzea eskola-erkidegoko partaide desberdinek egindako eskaerei.
  - Betetzea Hezkuntza Ikuskaritzari eta, bere funtzioak betetzean, gauzatzen dituen jardueri eragiten dieten lege- eta arau-baldintzak.
  - Egiten diren ikastetxeen bisiten kalitatea hobetzea.
  - Planifikazio baten arabera, koordinazioz eta taldeka lan egitea.
  - Behar diren planen bidez Ikuskaritzako pertsonal guztiaren etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
  - Hezkuntza Ikuskaritzaren barne eta kanpo komunikazioa hobetzea.
  - Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren exigentzia eta premiei egokitzeko malgutasuna erakustea.
  - Identifikatu eta ezabatzea Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan dauden akatsen balizko arrazoiak. Horrela eraginkorragoak izan daitezten lagunduko da.
- Kalitateari buruzko politika honek ematen du Ikuskaritzaren jardueran gidari diren estrategia desberdinak, kalitatearen helburuetan zehaztuko direnak, finkatu eta berrikusteko erreferentzia-esparru egokia.
  - Hezkuntza Ikuskaritzak ezarri ditu politika hau pertsonal osoari komunikatzeko eta ulertzeko bideak eta, sistema berrikustearen barruan, aldizka berrikusten dela bermatzen du.

### **3. KALITATE-HELBURUAK.**

Ondorengoak dira Urteko Plan honetan sartzen diren kalitate-helburuak:

- Ikuskaritzaren Urteko Planean dauden jarduerak ISOren baldintzen arabera dokumentatu eta ezartzea.
- Ikuskariak beren erreferentziako ikastetxetara egin beharreko bisitak planifikatzea.
- Planifikatutako jarduerak aurreikusitako epeetan egiten direla bermatzea.
- Ikuskariak jarduteko irizpideak koordinatu eta bateratzea.
- Eskola-erkidegoko kide desberdinek egindako eskaerei arreta eta erantzuna ematea.
- Ikuskarien prestakuntza-jarduerak planifikatu eta eraginkorrak diren ebaluatzea.
- Dokumentazioa paper-euskarrian eta euskarri informatikoan kudeatu eta artxibatzeko sistema komun bat ezartzea.
- Ikuskaritzaren LZ berria egin eta proposatzea, onartu eta argitara emateko.

### **4. IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA.**

Ikuskaritza Plana hobetzeari begira 2005/06 ikasturtean egin diren azterketen ondorioz, aldatu da 2005/08ko Hiru Urteko Plan Nagusian agertzen den Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuen mapa, UNE-EN ISO 9001: 2000 arauaren baldintzei egokitzeko. Prozesuen mapa berria I. eranskin gisa agertzen da Urteko Plan honetan.

Ikuskaritzarentzat definituta dagoen kalitatea kudeatzeko sistema prozesuen bidez kudeatzera bideratuta dago, ondorengo antolaketa-egituraren arabera:

- **Makroprozesuek** kalitatea kudeatzeko sistema azaltzen dute eta UNE-EN ISO 9001:2000 arauari egokituta daude. Izan ere, arau horren kapitulu desberdinen arabera zehazten dira.
- **Prozesuak** dira, arauaren baldintzen arabera, makroprozesuak garatzeko tresnak. “Zerbitzuen identifikazioa eta ematea” makroprozesuaren kasuan, prozesuak Ikuskaritzaren jardura desberdinen (azpi-prozesuak) taldekatze gisa definitzen dira, kontrol-, aholkularitza- eta ebaluazio-irizpide funtzionalen, eskaeraren jatorriaren eta kanpo eta barne bezeroen tipologiaren arabera.
- **Azpi-prozesuak** Ikuskaritzaren jardura desberdinen konkretzioa dira eta LI 02 agirian, “Ikuskaritzako azpi-prozesuen zerrenda”, identifikatuta daude.

**Makroprozesuak** ondorengo hauek dira:

- **MP 01.- Estrategia, plangintza eta antolaketa.**
- **MP 02.- Zerbitzuak identifikatu eta ematea.**
- **MP 03.- Giza baliabideen kudeaketa.**
- **MP 04.- Agirien kudeaketa.**
- **MP 05.- Baliabide materialen kudeaketa.**
- **MP 06.- Neurketa, azterketa eta hobekuntza.**

Ondorengoak dira Makroprozesu bakoitzean sartutako **Prozesuak**:

**MP01.- Estrategia, Plangintza eta antolaketa.**

- **PR 0101.- Egitekoaren identifikazioa eta berrikustea.**
- **PR 0102.- Ikuskaritzaren estrategia: Hiru Urteko Plana, Urteko Plana eta sistema berrikustea.**
- **PR 0103.- Antolaketa-egitura eta LZ egitea.**
- **PR 0104.- Barne eta kanpo komunikazioa.**

**MP02.- Zerbitzuen identifikazioa eta ematea.** (Urteko Plan honen ardatzik nagusia da eta Ikuskaritzak egin beharreko jarduerak zehazten ditu)

- **PR 0201.- Ebaluazio-jarduerak.**
- **PR 0202.- Kontrol-jarduerak.**
- **PR 0203.- Aholkularitza-jarduerak.**
- **PR 0204.- Lankidetzak-jarduerak.**

**MP03.- Giza baliabideen kudeaketa.**

- **PR 0301.- Pertsonala hornitzea.**
- **PR 0302.- Pertsonal berriaren harrera.**
- **PR 0303.- Pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea.**

**MP04.- Agirien kudeaketa.**

- **PR 0401.- Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola.**

**MP05.- Baliabide materialen kudeaketa.**

- **PR 0501.- Baliabide materialen hornikuntza.**

**MP06.- Neurketa, azterketa eta hobekuntza.**

- **PR 0601.- Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.**
- **PR 0602.- Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.**
- **PR 0603.- Barne auditoretzak.**
- **PR 0604.- Desadostasunen, jarduera zuzentzaileen eta prebentzio-jardueren kudeaketa.**

2006-07 ikasturtean aurrera eramango dira Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuak, Ikuskaritzaren beraren premiei eta ISO 9001:2000 aruari egokituta dagoen kalitatea kudeatzeko sistema bat dokumentatuz eta ezarriz.

Ikuskaritza Nagusiari, Lurralde Burutzei, Zonalde Burutzei eta prozesu eta azpiprozesuetako arduradunei dagokie liderrak izatea Ikuskaritzaren prozesu eta azpiprozesuetan adierazitako jarduerak aurrera eramateko garapenean.

**5. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK.**

II. eranskinean zehazten dira ikasturte honetan egin behar diren Urteko Planaren jarduerak edo azpiprozesuak, Hezkuntza Administrazioako arduradunen eskariz egin behar diren beste jarduera batzuen kalterik gabe. Jarduera edo azpiprozesu hauek MP 02ren, “zerbitzuak identifikatu eta ematea”ren, menpeko prozesuetan sartuta daude. Aipatutako eranskinean ondorengo atalak zehazten dira azpiprozesu bakoitzerako:

- Ikuskaritzak egin beharreko azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Egiteko aurreikusten den aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txosten mota eta jaulkitze-data.
- Azpiprozesuaren aplikazio-eremua: jardun behar den ikastetxeak edo erakundeak.
- Azpiprozesua planifikatu eta programatzeaz arduratzen den talde edo arduraduna.
- Jarduera hau ikastetxeetan egin behar duten ikuskariak eta beren jarduera-eremua: zonaldea, lurraldea edo erkidegoa.

Sistemaren agirien kudeaketa-prozesuan (PR 04.01 dokumentazioaren eta erregistroen kontrola) zehaztutakoa kontuan hartuz dokumentatu beharko dira egiten diren azpiprozesu guztiak.

**6. HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA.**

**6.1. LAN-TALDEAK ETA BATZORDEAK.**

2005-08ko aldirako Hiru Urteko Plan Nagusiak zehazten ditu lan-talde eta batzorde batzuen funtzionamendua eta ardurak: Kalitate Batzordea eta Planeko Azpiprozesu Taldeak. Plan horretan adierazitako helburuak eraginkortasunez lortzeko, egokitu behar da Ikuskaritzak funtzionatzeko lehen aipatutako Hiru Urteko Plan Nagusian onartu zen diseinua. Horretarako, 2006/07 ikasturtean bultzada berezia emango zaio Kalitate Batzordeari.

- **Kalitate-Batzordea**

Ondorengo ikuskariek osatuko dute: José Antonio Romerok (koordinatzaileak), José Ignacio Molinuevok, Pedro M<sup>a</sup> Legarretak, Koldo Salterainek, José M<sup>a</sup> Oñatek, Mercedes Hidalgo, Jesús M<sup>a</sup> Kortazarrek, Xabier Egizabalek eta Lourdes Isasak.

Batzorde hau osatzen duten ikuskariek, erreferentziako ikuskari gisa esleituta dituzten ikastetxeetan (ikastetxe kopuru urria) egin beharreko funtzio orokor guztiez eta asteko zaintza-egunari dagozkionez gain, 2002ko ekainaren 18ko Aginduan eta 2005-08ko Hiru Urteko Plan Nagusian zehazten direnak eta kalitatea kudeatzeko sistema dokumentatu eta ezartzetik eratorritakoak bete beharko dituzte. Gauzak horrela, funtzio berezi hauek egiteko, batzordekideek bi eguneko gutxienezko dedikazioa izango dute asteen (astelehena eta asteazkena).

Planean aurreikusitako prozesu eta azpiprozesuen plangintza eta dokumentaziorako Kalitate Batzordeak kontuan hartuko ditu azpiprozesu-talde desberdinek egindako alde zuzenak eta ISO 9001:2000 lortzeko zehaztutako aholkularitzaren laguntza izango du. Geroago, Ikuskaritzako Lurralde Arteko Batzordeak onartu beharko ditu Kalitate Batzordeak proposatutako prozesu eta azpiprozesuen dokumentazioa eta plangintza.

- **Azpiprozesu-taldeak**

Ikuskari baten zuzendaritzapean jardungo dute Urteko Planaren azpiprozesuen plangintzaz arduratuko diren taldeak eta ikuskari hori izango da taldeen funtzionamenduaren arduraduna. Ahal den neurrian, ikuskari hori Ikuskaritzako Lurralde Arteko Batzordeko kidea izango da.

Taldeak ondorengo funtzioak dituzte:

- Kalitate Batzordearekin elkarlanean esleitutako azpiprozesua planifikatzea.
- Azpiprozesua garatzeko argibide operatiboak eta behar den dokumentazioa hedatzea.
- Behar den txostena egitea, azpiprozesua bera nola egiten den ebaluatuz eta hobetzeko egin daitezkeen jarduerak proposatuz.

Taldeko ikuskari arduradunak ondorengo funtzioak ditu:

- Liderra eta koordinatzailea izatea azpiprozesua lurraldeetan aurrera eramatean.
- Taldeetako kideak egin behar dituzten jarduerak planifikatu eta programatzea, Ikuskaritzako Lurralde Arteko Batzordeari informazioa emanez.
- Azpiprozesua gauzatzeko ezarritako prozedura berrikustea.
- Txostena egiteaz arduratzea, taldeko gainontzeko partaideekin lankidetzan.
- Jarduera nola egin den baloratzea, ikuskari parte-hartzaileek emandako informaziotik abiatuz.
- Adierazitako helburuei buruz proposamenak egin eta hobekuntzak proposatzea.

Ikuskarien kopuru aldakor batek osatzen du azpiprozesu-talde bakoitza eta haien izenak Urteko Plan honen 2. eranskinean aipatzen dira.

- **Lurralde Arteko Koordinazio Batzordea**

2002ko ekainaren 18ko Aginduak (2002ko uztailaren 2ko EHAA) 8. artikuluan Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeari ezartzen dizkion funtzioez gain, Ikuskaritzaren Urteko Planaren jarraipena egin eta betetzen den ala ez ebaluatu beharko du, baita aurreikusitako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea ere.

## **6.2. ZAINTZA-EGUNEAN KANPOKO ESKARIEI EMAN BEHARREKO ARRETAREN ANTOLAKETA.**

Kanpoko eskaera horrela definitzen da: edozein ikuskariri edo zerbitzuak Ikuskaritzan ematen dituen administrazio-pertsonalari ahoz edo idatziz egiten zaion edozein proposamen, galdera, kexa edo erreklamazio.

Esku hartzeko eskaerari behar bezala erantzuteko, ikastetxe bakoitzaren errealitatea ezagutu behar da eta erreferentziako ikuskariak eman dezake bakarrik horren segurantzaz. Horregatik, komeni da erreferentziako ikuskariaren bidez arreta ematea kanpotik datozen eskari gehienei eta, ondorioz, bai bulegoan ez daudelako, bai eten ezin duten jarduera bat egiten ari direlako, une horretan eskaerari arreta eman ezin dioten zonaldeko ikuskariak ordezkatzeko egoera gisa hartu behar da zaintza. Bigarren hipotesia gertatuz gero, erreferentziako ikuskariak zonalde buruari jakinaraziko dio eta honek, administrazio-pertsonalari informazioa eman ondoren, egun horretako eskaera eta bisitei arreta eman beharko diela jakinaraziko dio zaintzako ikuskariari.

Baina horrela gertatuta ere, zaintzako ikuskariak jasotako informazioa edo planteatutako eskaria larritzat jotzen badu, berehala jarriko da erreferentziako ikuskariarekin harremanetan. Horregatik, erregistro bat izan behar da zonalde bakoitzean, irteera eta bisiten planifikazioarekin eta ikuskari bakoitza bere lanaldian lokalizatu ahal izateko ikastetxeak edo beste egoitza batzuk adieraziko dituenak. Edonola ere, gertatutakoak egunero bete behar den gorabeheren programan agertu beharko du.

Zaintzako edo erreferentziako ikuskariak arreta eman dieten deiak jasota geratzeko, gorabeherari buruzko aplikazio informatikoa erabiliko da, horri buruz ematen diren argibideak kontuan hartuz. Horretaz gain, Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza Makroprozesuko “proposamenak, kexak eta erreklamazioak” PR 06 02 prozesuan zehazten dena ere hartu beharko da kontuan.

Administrazio-pertsonala arduratuko da, lehenengo aldia, arreta emateko telefono-deiei eta, planteatutako eskaeraren arabera, ikuskariari pasako diote. Zuzenean arreta eman ezean, administrazio-pertsonalak espresuki jasota utziko ditu deiak eta Ordezkaritzetan dagoen eredu erabiliko du erregistratu eta banatzeko.

Zonalde burutza bakoitzak asteko zaintzak antolatuko ditu eta bermatu behar du egun bakoitzean, gutxienez, zaintzako bi ikuskari (Eibarren izan ezik) egongo direla, hezkuntza-maila desberdinetan ezagutza espezifikokoak izango dituztenak. Horretaz gain, Zonalde burutzek haien erreferentziako ikuskariaren zaintza-eguna zein den adieraziko diete ikastetxeei eta premiazkoak ez diren eskaerak eta informazioak egun horretan bideratzeko eskatuko dute.

Bakoitzari emandako zaintza-eguna errespetatu behar da. Justifikatutako arrazoiren batengatik ezin bada, tokian tokiko zonalde burutzari jakinaraziko zaio eta honek zaintza ordezkatzeko neurriak hartuko ditu.

Ostiralak erakunde-prestakuntzarako, norberak bere burua prestatzeko eta zonaldeko talde desberdinen arteko koordinaziorako erabiliko dira. Horregatik, egun horietan eta oporraldietan izango diren zaintzak, lurralde mailan egingo dira lurralde burutzek antolatuta.

### **6.3. PERTSONAL BERRIAREN HARRERA.**

2006/07 ikasturtean ikuskari batzuk hasiko dira Ikuskaritzaren plantillan lanean eta, horregatik, M. Bonetek, P. L. Rodriguezek, J. A. Altozanok eta I. Negredok osatutako taldeak ezarritako harrera-prozedura gaurkotuko du, baita PR 0302 prozesua, “pertsonal berriaren Harrera”, dokumentatu ere.

### **6.4. DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA ETA ARTXIBOA.**

ISO 9001:2000 lortzeko ezarritako aholkularitzak egindako “Hezkuntza Ikuskaritzaren hasierako diagnostikoa” txostenaren ondorioen artean agertzen denez, dokumentazioa paper-euskarrian kudeatzeko sistema komunak finkatu behar dira Ikuskaritzaren egoitza guztietan.

Artxiboak antolatzeko era desberdinak ikusi direla eta Ikuskaritzaren egoitzetan (zonalde eta lurralde burutzak) antolatzeko irizpide bateratuak ez daudela kontuan hartuta, artxiboak paper-euskarrian eta euskarri informatikoan antolatzeko funtsezko arau batzuk finkatu nahi dira ikasturte honetan, bai Ikuskaritzan dagoen administrazio-dokumentazio orokorrari, bai Ikuskaritzaren jardueratik eratorritakoari (kudeaketari laguntzeko dokumentazioa) begira. Horrela Ikuskaritzako edozein pertsonak errazago eskuratu ahal izango du informazioa, agiriak artxibora aldatu ahal izango dira eta ez dira gordetzean bikoiztasunak gertatuko.

Horretarako, ondorengo gaiei buruzko oinarritzko kontzeptuak finkatu beharko dira: agiriak, administrazio-agiriak, artxibatzeak agiriak, laguntza informatikoko agiriak, artxibora sartzeko baldintzak edo baimenak, egoteko epeak, xahuketa edo ezabaketa eta artxiboa. Halaber, informazioa informatikaren bidez behar bezala kudeatzeko oinarriak finkatuko dira, Ikuskaritzak aurrera eramaten dituen prozesu eta zerbitzuetarako eskatzen den informazioa kontrolatu, artxibatu eta bilatu ahal izateko. Edonola ere, arreta berezia eman beharko zaio Datuak Babesteko Lege Organikoari, informazio pertsonal eta isilpekoak behar bezala kudeatzeko mekanismoak ezartzeko asmoz.

Ondorengo printzipioa hartu beharko da kontuan oinarritzko arau hauek egin eta geroago ezartzeko prozesuan, hots, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Orokorra dela EAeko Administrazio Orokorraren menpeko erakunde guztiek sortutako dokumentazioa gorde eta zaintzearen ardura duen bulegoa. Horregatik, bulego horrek horretarako ezarrita dituen prozeduretatik abiatu beharko da.

Aipatutako oinarritzko arauak egin eta geroago ezartzeko prozesuan aholkularitza emateko ikuskarien talde bat osatuko da (M. Bonetek, R. Fernándezek, J.A. Altozanok eta I. Negredok osatua), Ikuskaritzako administrazio-pertsonalaren unean uneko parte-hartzearekin. Edonola ere, PR 0401 prozesuan, “dokumentazioa eta erregistroak kontrolatzea”



## **7. IKUSKARITZAKO PERTSONALAREN PRESTAKUNTZA ETA EUSKALDUNTZEA.**

ISO 9001.2000 arauaren eskaerei erantzuteko pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzeari buruz dokumentatu behar den PR 03.03 prozesua alde batera utzita, jarraian adierazten den prestakuntza eraman nahi da aurrera 2006-07 ikasturtean:

- EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunaldiak.
- Kalitate-programei eta etengabeko hobekuntzari buruzko prestakuntza (1. hiruhilekoan batez ere).
  - Kalitatea ISO 9001:2000 ereduaren arabera kudeatzeko sistema bat ezartzeko aholkularitza.
  - ISO 9001:2000 Araua. Prestakuntza hau emango zaie lanean duela gutxi hasi direlako oraindik egin ezin izan duten ikuskariei.
- Gatazketan bitartekaritzari eta elkarbizitzari buruzko prestakuntza-saioak.
- Ikuskaritzaren funtzioei lotutako gai juridiko eta administratiboei buruzko prestakuntza.
- Lanbide Heziketaren alderdi espezifikoiei buruzko prestakuntza-saioa (aitortzeko gailua eta Hobbide).
- Nerabeen arazoei buruzko prestakuntza.
- Hezkuntza Bereziari buruzko prestakuntza espezifikoa.
- Biltzarretara, mintegietara, ...etab. etara joatea, jakinarazpen edo txostenak aurkezten dituztenak batez ere.

Ikuskari Nagusiak erabakiko du nortzuek hartuko duten prestakuntza-ikastaro hauetan parte, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta. Gainera, informazio-bilerak egiten jarraituko da, Ikuskaritzarentzat interesa duten gaiei buruzkoak.

Ikasturte honetan erraztasunak emango dira euskarako ikastaroetara joateko liberazioak, HE2 egiaztatzeko ikuskariek banaka eskatu eta Hezkuntza Sailak baimendu dituenak, IRALE programan dauden baldintzen barruan eta, betiere, bateragarri badira Ikuskaritzaren zerbitzua zonalde desberdinetan ematearekin.

Euskarak gero eta presentzia handiagoa izatea du Ikuskaritzaren euskalduntzeak helburu, Ikuskaritzaren txosten desberdinetan eta, batez ere, Ikuskaritzaren Zerbitzuaren beraren bileretan.

## **8. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA.**

Hiru Urteko Plan Nagusia ikasturte bakoitzaren bukaeran ebaluatuko diren urteko planetan gauzatzen da. Horregatik, 2006-07 ikasturtearen bukaeran, Urteko Plan hau ebaluatuko da, ondorengo iturrien bidez batez ere:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea (PR 0601).
- Proposamen, kexa eta erreklamazioak biltzea (PR 0602).
- Prozesuak, azpiprozesuak eta Urteko Plan bera kontrolatzeko adierazleen panela.

Horrekin guztiarekin sistema berrikusteari buruzko txostena egingo da, gutxienez ondorengo atalak hartuko dituena:



- Barne eta kanpo auditoretzen emaitzak.
- Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.
- Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.
- Prozesu eta zerbitzuetan izandako desadostasunak.
- Jarduera zuzentzaileen eta prebentziozkoen egoera.
- Kalitatea kudeatzeko sistemari eragin ahal izango zioten aldaketen proposamenak, Kalitate- Politika eta Helburuak barne.
- Hobetzeko, oro har, gomendioak.
- Helburuak lortzean eta prozesu- eta zerbitzu-adierazleetan lortu diren emaitzak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Ateratako ondorioak.

Plan honen III. eranskinean aurkezten da Ikuskaritzaren Urteko Planari lotutako helburu eta adierazleen estimazioa. Adierazle hauek, gehi prozesu eta azpiprozesuei dagozkienek, osatzen dute Urteko Planaren jarraipena egiteko funtsezko elementuetako bat izango den adierazleen panela.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 31

Ikuskari Nagusia

Izpta. Juan M<sup>a</sup> Azpiria Zabala

## I. ERANSKINA- IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA

### PROZESU ESTRATEGIKOAK

#### MP01.- Estrategia, Plangintza eta antolaketa.

PR 0101 Egitekoaren identifikazioa eta berrikuspena.

PR 0103 Antolaketa-egitura eta LZ egitea.

PR 0102 Ikuskaritzaren estrategia: Hiru Urteko Plana, Urteko Plana eta sistema berrikustea.

PR 0104 Barne eta kanpo komunikazioa

### ZERBITZUA EMATEKO PROZESUAK

#### MP02.- Zerbitzuen identifikazioa eta ematea.

PR 0201 Ebaluazio-jarduerak

PR 0202 Kontrol-jarduerak

PR 0203 Aholkularitza-jarduerak

PR 0204 Lankidetzeta-jarduerak

### AGIRI ETA BALIABIDEAK KUDEATZEKO PROZESUAK

#### MP03.- Giza baliabideen kudeaketa.

PR 0301 Pertsonal hornikuntza

PR 0302 Pertsonal berriaren harrera

PR 0303 Pertsonalaren prestakuntza eta euskalduntzea

#### MP04 Agirien kudeaketa

PR 0401 Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola

#### MP05 Baliabide materialen kudeaketa.

PR 0501 Baliabide materialen hornikuntza

### NEURTU ETA AZTERTZEKO PROZESUAK

#### MP06 Neurketa, azterketa eta hobekuntza

PR 0601 Hartzaileak zein mailatan dauden pozik neurtzea.

PR 0602 Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.

PR 0603 Barne auditoretzak.

PR 0604 Desadostasunen, jardura zuzentzaileen eta prebentziozko jardueren kudeaketa

## II. ERANSKINA

### 2006/07rako IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

#### PR 0201 Ebaluazio-jarduerak.

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
<b>Ikastetxeen ebaluazioa</b>										
0201 01	Kalitatea gestionatzeko sistemaren (KGS) ebaluazioa.	2. eta 3. hiruhilekoa	Ik. txos.	05/30	KGS garatzen ari diren ikastetxeak eta Berritzegun.	M. Bonet	C. Mediavilla A. Idígoras J.A. Fernández	KGSn esperientzia duten ikuskariak	EAE	
0201 02	Kualifikazio-sistemari lotutako prestakuntzaren auditoretza	Azaroa-maiatza	Ik. txos. EAE txos.	05/30 06/30	Lagina	P. Bilbatua	J.A. González J.M. Kortazar I. Erice	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	Lurraldea	
0201 03	Araubide orokor, bereziko eta kirol-irakaskuntzetako heziketa-zikloen auditoretzak.	Urtarrila-maiatza	Ik. txos. EAE txos	05/30	Heziketa-zikloak dituzten ikastetxeen lagina	P. Bilbatua	---	Auditoretzetan esperientzia duten ikuskariak	Lurraldea	Plangintza eta balidazioa
0201 04	GUNEKako ebaluazioa	3. hiruhilek	EAE txos	06/30	R5eko ikastetxeak	J.A. Romero	X. Egizabal	Erreferentziako ikuskariak + ikus. arduradunak	Lurraldea	
<b>Irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioa</b>										
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak eta praktiketako funtzionarioak	2. eta 3. hiruhilekoa	Banakako txostena	05/30	Guztiak	Lurralde Buruak	---	Erreferentziako ikuskariak	Zonaldea	Erreferentziako ikuskararen gida

## PR 02.01 Ebaluazio-jarduerak.

a

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu-taldea	Azpiprozesua gauzatzea	Ikuskarien jardueraren eremua	Oharrak
